



## ERRONKA: DISEINATU PUXTARRI-IBILBIDE BAT, BIRZIKLATZEKO GAUZEKIN

Diseina al dezakezu funtzionatzen duen puxtarri-ibilbide bat etxean birziklatzeko dituzun gauzekin?

**ZEREGINA:** Bildu, astebetetz edo, birziklatzeko material garbia, eta diseinatu funtzionatzen duen puxtarri-ibilbide bat.

### MATERIALAK

- Birziklatzeko edozein material
- Karrozari-zinta
- Guraizeak
- Lata-irekigailu bat (heldu baten laguntzarekin)
- Puxtarriak
- Kartoi-zati handi bat (aukerakoa)

## GAKOAK

- Karrozari-zinta erabiliz, ohiko zinta itsasgarriak erabilia baino arrisku txikiagoa dago horma kaltetzeko. Ez baduzu horman ezer itsatsi nahi, erabili kartoi-zati handi bat atzean jartzeko.
- Latak erabili behar badituzu, heldu batek ikus dezala ertz zorrotzik duten. Lata-irekigailu bat erabili behar baduzu, eskatu heldu bati laguntzeko.
- Plastikozko ontziren bat ebaki behar baduzu, agian, heldu bati laguntza eska diezaiokezu. Plastikoa ebaki ondoren, begiratu ertz zorrotzik duen.
- Karrozari-zinta erabiliz, puxtarrri-ibilbidean jartzen dituzun piezak lekuz alda ditzakezu.

### Gehiago nahi baduzu...

EGIN PROBA PUXTARRIAK BAINO GAUZA ARINAGOEKIN; BORLEKIN, ESATERAKO. ZURE PUXTARRI-IBILBIDEAK FUNTZIONATZEN AL DU HALA ERE, ALA BATZUK EGOKITU EGIN BEHAR DIRA?

ERAIKI PUXTARRI-IBILBIDE BAT, HIRU BIRA EDO GEHIAGO JARRITA.